

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2020ko URRIAREN 29an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN TELEMATIKOKI EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2020ko urriaren 29an, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
 Vicente Garcia Momblona
 Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
 Mireia Ruiz Delgado
 Jesus Maria Tejada Cantero
 Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2020ko irailaren 30ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 30 de septiembre de 2020.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
4. **Tolosako hiltegi Mankomunatuari 2020 urteko ekarpena burutzeko onespena./ Aprobación de la aportación económica al Matadero Mancomunado de Tolosa correspondiente al ejercicio 2020.**
5. **Beste batzuk/Otros.**
6. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
 - 6.1. **Adierazpen instituzionalaren onespena: Azaroak 25 Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko eguna./Aprobación de la declaración institucional: 25 de noviembre día internacional por la Eliminación de la Violencia hacia las Mujeres.**

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2020 urteko irailaren 30ean egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 118/2020tik 131/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.


HIRUGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

| | |
|--|----------|
| TOLOMENDI | 880,35 |
| ICE | 66,55 |
| IZENPE | 207,31 |
| EZEIZA | 526,96 |
| TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA | 674,36 |
| KIROLZER | 41,15 |
| ZU ETA BIOK | 1.178,17 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 590,00 |
| EBA ERKIZIA | 1.261,61 |
| GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA | 209,90 |
| BERRI LANTEGIA | 60,67 |
| ORONA | 404,89 |
| JOYN SOLUCIONES DE MOBILIARIO S.L. | 4.424,97 |
| ALKAIN | 179,67 |
| TEKNIMAP EMERGIA Y MEDIO AMBIENTE S.L. | 6.509,80 |
| GUREAK MARKETIMNG, S.L.U. | 8,49 |
| ZIZURKIL ELEKTRIZITATEA, S.L. | 44,77 |
| GILBE | 26,82 |
| EBA ERKIZIA | 1.696,00 |
| GRENKE | 129,41 |
| NORTEGAS | 31,88 |
| NORTEGAS | 156,49 |
| IBERDROLA | 30,95 |
| IBERDROLA | 180,56 |
| IBERDROLA | 158,69 |
| IBERDROLA | 134,70 |
| IBERDROLA | 69,09 |
| TELEFONICA | 0,18 |
| TELEFONICA | 182,27 |
| TELEFONICA | 97,41 |
| VEDISCOBA,SA. | 1.342,95 |

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **21.507,02** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARRENGO PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2020 URTEKO EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2020ko otsailaren 27an egindako bilkuran, aho batez erabaki zutela, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2020 urtean 53.002,00 eurotako ekarpena egin behar dutela. Larraulgo Udalarari 131,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2020 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 131,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2020ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 131,00 euroko gastua onestea.

BOSTGARRENA PUNTUA

BESTE BATZUK

5.1.LARRAULGO KLIMAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik 2020ko irailaren 10ean egindako Udalbatzarrean, "TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L." enpresari, Larraulgo klimaren plan estrategikoa egiteko kontratua esleitu zitzaioela.

Ikusirik, "TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L." enpresak, Larraulgo Udalean aurkeztu duela "Larraulgo Klimaren Plan estrategiko" dokumentua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: "TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L." enpresak eginiko "Larraulgo Klimaren Plan Estrategikoa" onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

5.2. TEKNIMAP ENERGIA Y MEDIO AMBIENTE S.L. ENPRESAK AURKEZTURIKO 20200344 FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2020ko irailaren 10ean egindako Udalbatzarrean, “TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L.” enpresari, Larraulgo klimaren plan estrategikoa egiteko kontratua esleitu zitzaiola.

“TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L.” enpresak Larraulgo Udaletxean aurkeztu duela aipaturiko Plana.

Ikusirik, “TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L.” enpresak burutu dituela egin behar zituen lanak, 20200344 zenbakia duen faktura aurkezten du, bere zenbatekoa 6.509,80 euro izanik.

Ikusirik, 2020 urteko Udal aurrekontuetako 1.0000.643.170.00.01 kontu sailean badagoela aipaturiko faktura ordaintzeko adina diru.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: “TEKNIMAP, Energia y Medio Ambiente, S.L.” enpresak aurkezturiko 20200344 zenbakia duen faktura onestea, bere zenbatekoa 6.509,80 euro izanik.

BIGARRENA: 6.509,80 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2020 urteko Udal aurrekontuetako 1.0000.643.170.00.01 Kontu sailaren kontura.

5.3. EBA ERKIZIA BRION ARKITEKTOAK AURKEZTURIKO 50/2020 FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik 2020ko irailaren 10ean 2020/110 Alkatetza ebazpen bidez, “EBA ERKIZIA BRION” arkitektoari, Larraulgo udalerriko klima aldatetaren aurkako plan estrategikoa tramitatu, aholkatu eta koordinatzea, kanpoko teknikari espezialista gisa lanak egiteko kontratua esleitu zitzaiola.

Ikusirik aipaturiko lanak egin direla, Eba Erkizia Brion arkitektoak, 50/2020 zenbakia duen faktura aurkeztu du.

Ikusirik, 2020 urteko Udal aurrekontuetako 1.0000.643.170.00.01 kontu sailean badagoela aipaturiko faktura ordaintzeko adina diru.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: EBA ERKIZIA BRION arkitektoak aurkezturiko 50/2020 zenbakia duen faktura onestea, bere zenbatekoa 1.696,00 euro izanik.

BIGARRENA: 1.696,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2020 urteko Udal aurrekontuetako 1.0000.643.170.00.01 Kontu sailaren kontura.

SEIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

6.1. ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA: AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ikusirik EUDEL ek aurkezturiko adierazpen instituzionala: azaroak 25 emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna, non ondorengoa dioen:


“AZAROAREN 25-ERAKO EREDUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENAEMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA

COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarriz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendumurrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasun osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugaltzeko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskeengan. Gizartearen aitortpen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu. Horregatik, aurten Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatze konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin.

Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeek eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihurtu dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


izateko, emakumeei beren askapen-, berreskuratze-, ahalduntze- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeek duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitzarako oinarritzko eskubidea berreskura dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetzara seguru, solidario eta berdin zalerako gune gisa indartu daitezen.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Larraulgo Udalak konpromiso hau hartzen du:

- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak** arreta-prozesu osoaren **erdigunean** jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko.
- Behaketa **hobetzea**, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta- eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta **egokitzea**, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.
- Emakumeen ahalduntzeari eta Gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak **bultzatzea**, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik.
- Tokiko bizitzan berdintasun-programak **zaintzea eta egonkortzea**, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- **COVID19ren krisiak** emakumeen pobretzean eta kalte beratasunean duen **eragina aztertzea**, laguntza-jarduera espezifikokoak diseinatu ahal izateko.
- **Genero-ikuspegia txertatzea** enplegu-galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk **arintzeko neurrietan**, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztopo diren **indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko**.
- Erakundeen, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **lankidetzara eta koordinazioa** eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.

Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko eguna dela eta deitutako mobilizazioei atxikitzeko.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Eudelek aurkezturiko Adierazpen instituzionala: azaroak 25 emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna bere osotasunean onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

6.2. UDAL FINANTZAKETARAKO ETA ZORPETZEKO FORU FUNTSARI DAGOKION MOZIOA ONARTZEA

Ikusirik PSE-EE (PSOE)-ek aurkezturiko Udal finantzaketarako eta zorpetzeko foru funtsari buruzko mozioa, non ondorengo dioen:

“MOCIÓN EN RELACIÓN AL FONDO FORAL DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL Y EL ENDEUDAMIENTO”

La crisis sanitaria y económica provocada por el coronavirus COVID-19 a nivel mundial, ha supuesto un mayor gasto en servicios especialmente afectados por la pandemia, así como una menor recaudación por tributos concertados.

Los ayuntamientos han abandonado sus previsiones y se han enfrentado a otras prioridades y necesidades: adoptar medidas para garantizar la seguridad sanitaria de los ciudadanos, establecer servicios adicionales de limpieza, atender las nuevas necesidades surgidas en el ámbito de las políticas sociales, apoyar el comercio y los servicios municipales, ...


Además, la suspensión de muchos servicios de los ayuntamientos, como consecuencia de la situación de alarma también ha provocado pérdidas económicas en los ayuntamientos.

En estos momentos es necesario ser coherentes con el nuevo escenario descrito para paliar los mayores gastos y menores ingresos e impulsar la recuperación y dinamización de la economía vasca.

La Comisión Mixta del Concierto Económico, reunida el pasado 30 de septiembre, aprobó para las instituciones vascas un déficit del 3,5% en 2020 y del 3% para 2021 (2,2% para el Gobierno Vasco y un 0,8% para las diputaciones), en un acuerdo en el que, por primera vez, se reconoce a las diputaciones forales una capacidad de endeudamiento propio.

De esta forma, al acuerdo cerrado con el Ministerio de Hacienda en julio pasado, por el que se pactó el 2,6% de déficit, se le suma ahora un 0,9% específico para las diputaciones forales, llegando así al 3,5% para el conjunto de las instituciones vascas en 2020.

El consejero de Hacienda del Gobierno Vasco ha manifestado que esta mayor financiación con cargo a operaciones de endeudamiento, con el consiguiente incremento de la deuda a largo plazo, puede ser razonablemente asumida dada la situación financiera y de solvencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con un nivel



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

de deuda pública en relación con el PIB entre los más bajos de todas la Comunidades Autónomas.


La Diputación Foral de Gipuzkoa decidió que a los ayuntamientos se les reduciría un 20% del fondo foral que se preveía destinar para 2020 en los dos últimos trimestres. Pero en el Consejo de Finanzas celebrado el 15 de octubre de 2020 se indicó que la recaudación bajaría un 13,3%.

En este contexto favorable para los intereses de las instituciones vascas, se hace más necesario que nunca que los ayuntamientos gipuzkoanos seamos integrados en un acuerdo que facilite la continuidad financiera de los presupuestos municipales, a través de la capacidad de endeudamiento que pasa a tener la Diputación Foral de Gipuzkoa. Ello serviría para no tener una merma de ingresos procedentes del Fondo Foral de Financiación Municipal (FOFIM) durante el presente ejercicio y el siguiente, los dos años más duros de la actual crisis generada por la COVID-19. A través de esta fórmula de endeudamiento de los ayuntamientos con la Diputación, los consistorios devolveríamos la parte correspondiente de la merma de ingresos por tributos concertados en los años 2022 y 2023. Es una fórmula ya anunciada por los entes forales de Bizkaia y Araba y que pedimos se extienda a nuestro territorio.

De esta manera, se arrancarían una planificación de los presupuestos municipales del próximo año con garantías de certidumbre y estabilidad y que sin duda redundará en beneficio de los ciudadanos y ciudadanas de nuestra Ciudad reforzando los compromisos públicos con aquellos sectores de la sociedad que más están sufriendo la actual situación económica y sanitaria.

Es por ello que, el Pleno del Ayuntamiento de LARRAUL ACUERDA:

1. Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que el pago del Fondo Foral de Financiación Municipal a realizar en noviembre se realice en coherencia con las previsiones informadas en el Consejo de Finanzas de 15 de octubre de 2020.
2. Instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que, teniendo en cuenta su capacidad de endeudamiento, permita a los ayuntamientos, si así lo desean, solicitar hasta la cuantía total que les corresponde en las previsiones iniciales del FFFM para el año 2020. Los Ayuntamientos compensarán estas cuantías a la Diputación Foral en los años 2022 y 2023.
3. Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que comparta con los ayuntamientos que así lo deseen, la capacidad de endeudamiento de al menos el 40% de la cantidad pactada en el marco de la Comisión Mixta del Concierto.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

4.- Comunicar el presente acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a EUDEL.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, PSE-EE(PSOE)-ek aurkezturiko Udal finantzaketarako eta zorpetzeko foru funtsari buruzko mozioa bere osotasunean onartzea.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:00 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.